

## **ESKOLA KONTSEILUKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO INFORMAZIOA**

Hauteskunde Batzordeak hauteskundeak gauzatzeko data eta ordutegiak ipini ditu:

**Azaroaren 17an, ostegunean, bozketa eguna izango da.**

Egun honetan hauteskunde mahaia ondorengo orduetan zabalik egongo da:

**Goizean:** 09:00etatik 10:00etara eta 12:00etatik 13:00etara.

**Arratsaldean:** 14:00etatik 18:00etara.

Mahaian bozkatu ahal izateko hautesle bakoitzak bere **NAN/NIE aurkeztu beharko du.**

**Hautesle bakoitzak** bidaltzen den zerrendan **gehienez 7 hautagai** aukera ditzake (Guraso Elkarteko hautagaia zuzenean sartzen da). 7 izen baino gehiago agertzen diren botoak nuluak izango dira.

**PAPELETAK ESKOLAN EGONGO DIRA BOTAZIO EGUNEAN.**

EZIN DA BOTOA BESTE NORBAITEN ESKU UTZI.

**17an bere botoa eman ezin dutenek, botoa emateko hurrengo aukera izango dute:**

Hauteskunde batzordeko buruari zuzendutako gutun-azal bat ikastetxean entregatu beharko dute (10etik 16ra bitartean) jarraian zehazten diren dokumentuekin:

- NAN edo NIEren fotokopia.
- Hautagaien zerrenda beteta. (eskatu Zuzendaritzan)

Pertsona berdinen 2 boto agertuko balira, bat eskolara ekarritakoa eta beste bat hauteskontzian, azkenengo hau bakarrik onartuko da.

Ondoren, prozesuaren emaitzak, behin-behinekoak zein behin-betikoak, hurrengo hiru tokietan jarriko ditugu ikusgai: eskolako webgunean ([www.luisezeiza.eus](http://www.luisezeiza.eus)), Haur Hezkuntzako eraikuntzako kanpoko atean eta Lehen Hezkuntzako eraikuntzan dagoen zuzendaritzako atean.

Bozketaren **behin-behineko emaitzak azaroaren 18an** jakitera emango dira.

Emaitzen **erreklamazioak** egiteko epea **azaroaren 22tik 24ra**

Erreklamazioen ebazpena: **azaroaren 29an.**

**Behin-betiko emaitzak: azaroaren 30ean.**

**Eskola Kontseilu berriaren eraketa: abenduaren 12an**

HAUTESKUNDE BATZORDEA